# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia — Iruña, 2016ko irailaren 15a — 105. ZK.

**A U R K I B I D E A**

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, 2016-2017 ikasturteari begira Iruñeko Ermitagaña ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehen mailan lerro berri bat ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
—Galdera, 2016-2017 ikasturteari begira Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehen mailan lerro berri bat ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
—Galdera, Berriozarko Mendialdea I ikastetxe publikoko Haur Hezkuntzako lehen mailako ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
—Galdera, Nafarroako ikastetxe publikoetan erlijio katolikoko eskoletara joaten diren ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
—Galdera, garraio-txartel zaharrak erretiratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
—Galdera, toki entitateek 2016an langabeak kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegu deialdian ezarri den aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
—Galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei lotutako emergentzia egoeraren balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
—Galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei lotutako C.3, D.1 eta E.1 azpikategorien laguntzetan sartzen diren kontzeptuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
—Galdera, emergentzia sozialeko laguntzen eskatzaileen egoera ekonomikoa egiaztatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
—Galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei dagokienez itxi eta likidatu diren espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—Galdera, emergentzia sozialeko laguntzak ebaluatzeko txostenaren 19. orrian adierazi diren datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
—Galdera, , emergentzia sozialeko 2015eko laguntzen onuradunak izan diren pertsonei eta familia-unitateei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
—Galdera, babestutako enplegu sozialerako 2015eko diru-laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—Galdera, Zuzeneko Enplegu Aktiborako 2015eko diru-laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
—Galdera, Toki entitateek 2016an langabeak kontratatzeko asmoz Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egin duen enplegu-deialdiaren emaitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
—Galdera, gizarteratzeko eta laneratzeko errentaren kudeaketa-sistemen hobekuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
—Galdera, Ezgaitasunaren Arreta Integralerako Las Hayas zentroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, 2016-2017 ikasturteari begira Iruñeko Ermitagaña ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehen mailan lerro berri bat ezartzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2016-2017 ikasturteari begira Iruñeko Ermitagaña ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehen mailan lerro berri bat ezartzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 28ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

UNP parlamentu-taldeak 9-16/PES-00236 informazio-eskaera egin du, non galdetzen baita ea Ermitagaña ikastetxe publikoari 2016-2017 ikasturteari begira Haur Hezkuntzako lehen mailan lerro berri bat ezarriko duela komunikatu zaion. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak informatu beharrekoa:

Baldin eta matrikulazio-epearen ondoren Donibaneko eta Ermitagañako ikastetxe publikoetarako eskaeren kopuruak gainditzen badu une hauetan hutsik dauden postuen kopurua, Hezkuntza Departamentuak bigarren lerroa gaituko du Iruñeko Ermitagaña IPan, eta une horretan jakinaraziko dio hori ikastetxeari.

Momentuz, ez dugu premia hori antzeman, baina premiarik egonez gero, berehala gaituko da bigarren lerroa Ermitagaña IPan. Gaur arte, eskaera guztiak onartu dira familiek eskatutako eredu eta programetan, bai eta eskatutako eremuan ere. Gehienek, ikasleen % 98tik gora, lehen aukera gisa jarritako ikastetxean lortu dute postua.

Iruñean, 2016ko ekainaren 24an

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

# Galdera, 2016-2017 ikasturteari begira Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehen mailan lerro berri bat ezartzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2016-2017 ikasturteari begira Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehen mailan lerro berri bat ezartzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 28ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

UNP parlamentu-taldeak 9-16/PES-00237 informazio-eskaera egin du, non galdetzen baita ea Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoari 2016-2017 ikasturteari begira Haur Hezkuntzako lehen mailan lerro berri bat ezarriko duela komunikatu zaion. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak informatu beharrekoa:

Tuterako Monte San Julián Ikastetxe Publikoko zuzendaritzak lehenengo unetik izan zuen Hezkuntza Departamentuak hartutako erabakiaren berri, 2016-2017 ikasturterako Haur Hezkuntzako 1. mailako bigarren lerroa ezartzeari dagokionez.

Behin erabakia hartuta, ikastetxeari jakinarazi zitzaion 2016eko maiatzaren 11n, zuzendariari egindako telefono-dei baten bitartez eta posta elektronikoz. Era berean, Educa programan taldeen zuzkidura aldatu zen, eta talde batekoa izatetik bi taldekoa izatera pasa zen, eta aldaketa Hezkuntza Ikuskapenaren Zerbitzuari jakinarazi zitzaion, 2016-2017 ikasturterako plantillaren aurreikuspena alda zezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 23an

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

---

# Galdera, Berriozarko Mendialdea I ikastetxe publikoko Haur Hezkuntzako lehen mailako ikasleei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Berriozarko Mendialdea I ikastetxe publikoko Haur Hezkuntzako lehen mailako ikasleei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 28ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00238 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Lehenengo galderari dagokionez, gaiari buruz ikastetxeko zuzendariak aurkeztutako txostena eta gaur egun Educan dauden datuak alderatuta, egiaztatzen dugu 2016-17 ikasturterako 50 ikasle daudela aurre-inskripzioa eginda.

Bigarren galderari dagokionez, berriz, zuzendariak aurkeztutako txostena eta Educan dauden datuak alderatuta, honako ondorio hau atera dugu:

Ikastetxeak badaki sei familiak “aurre-inskripziorako epea amaitu ondoren, beren seme-alabak bertan matrikulatzeko asmoa adierazi dutela”, ikastetxeko zuzendariaren txostenean jasota ageri den bezala.

Educak ez ditu datu horiek islatzen, zeren eta behin aurre-inskripziorako epea amaituta, ez baitago aurreikusita epez kanpo aurkeztutakoek ikastetxean izena ematea eskatzea; izan ere, irailean berriz irekiko den epearen zain egon beharko dute. Horrenbestez, Hezkuntza Departamentuaren datu-basean asmo horiek ez daude jasota.

Hirugarren galderari dagokionez, zuzendariaren txostena eta Educan ageri diren datuak bat datoz, zeren eta legez ezarritako epe arruntean 49 ikasle matrikulatuta daudenez eta epe horretan beste ikasle bat esleitu denez, guztira 50 ikasle baitaude. Hezkuntza Departamentuak finkatutako ratioa talde bakoitzeko 25 ikaslekoa denez Haur Hezkuntzako lehenengo mailan, bi dira ikastetxe horri esleitutako lerroak.

Iruñean, 2016ko ekainaren 15ean

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

---

## Galdera, Nafarroako ikastetxe publikoetan erlijio katolikoko eskoletara joaten diren ikasleei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako ikastetxe publikoetan erlijio katolikoko eskoletara joaten diren ikasleei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 28ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00239 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Ikastetxe publikoetako funtzionamendu-plantilla prestatzeko aldian, ikuskatzaileak egiaztatu beharko du esleituta dauzkan ikastetxe guztietako Excel liburuetan ageri diren datu guztiak bat datozela zuzendaritza-taldeak dauzkan datuekin. Nagusiki, honako hauek dira datu horiek: mailaren eta ereduaren araberako talde kopurua; maila bakoitzeko ikasleen kopurua, ereduen edo/eta hizkuntza-programen arabera bereizita, eta atzerriko hizkuntzaren eta erlijioaren hautua. Datuak erantsitako taulan ageri bezala jaso beharko dira.

Desadostasunik izanez gero, dauden datuak egiaztatu beharko dira, egiazko datuak islatuta gera daitezen eta ikastetxearen funtzionamendu-plantilla zuzen egin ahal dadin. Horretarako, urtero egiten den bezala, bai ikuskatzaileek, bai ikastetxeetako zuzendariek behar den informazioa kontsultatu ahalko dute: matrikula zerrenda, egindako hautuak eta abar.

Iruñean, 2016ko ekainaren 14an

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

| HAUR HEZ./LEHEN HEZ. | HAUR HEZKUNTZA | | | | LEHEN HEZKUNTZA | | | | | | | Hezkuntza Berezia | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GAZTELANIA | 3 urte | 4 urte | 5 urte | Guztira | 1.a | 2.a | 3.a | 4.a | 5.a | 6.a | Guztira | | |
| G ereduko ikasleak | | | | 0 | | | | | | | 0 | | 0 |
| A ereduko ikasleak | | | | 0 | | | | | | | 0 | | 0 |
| Ikasleak, guztira | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Gaztelaniazko taldeak | | | | 0 | | | | | | | 0 | | 0 |
| Erlijioko ikasleak | | | | 0 | | | | | | | 0 | | 0 |
| Frantsesa 2. hizkuntza moduan duten ikasleak | | | | | | | | | | | 0 | | |
| Alemana 2. hizkuntza moduan duten ikasleak | | | | | | | | | | | 0 | | |

# Galdera, garraio-txartel zaharrak erretiratzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, garraio-txartel zaharrak erretiratzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 28ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunak galdera egin du Europako diru-laguntza batzuen programa bati buruz, zeinetarako Nafarroako Gobernuak epe bat zehaztu izan duen urtero, garraio-txartel zaharrak erretiratzeko. Hona eman beharreko informazioa:

Lehenengo, aipatu beharra dago egindako galdera jarduerari uzten dioten errepide bidezko garraiolari autonomoentzako laguntzei buruzkoa dela, eta laguntza horietarako deialdia Sustapen Ministerioak egiten duela urtero.

Horri dagokionez, Garapen Ekonomikorako Departamentuko Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak honako jarduerak egiten ditu, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagozkion eskumenen esparruan:

1. Nafarroan egoitza duten garraiolari autonomo interesdunek hala eskatzen badute, eskabideen izapidetzea kudeatzen du.

2. Nolanahi ere, eskatzaileari eskatutako erantzukizunpeko aitorpenen benetakotasuna egiaztatzen du, garraio-jarduerari dagokionez.

3. Sustapen Ministerioak deialdia ebatzita, Nafarroan egoitza duten onuradunen laguntzak ordaintzearen eraginetarako, baimenen baja izapidetzen da Enpresen eta Garraio Jardueren Erregistroan, bai eta jarduerari uzteko eta uko egiteko aitorpenak ere, eta baimenaren agiri diren txartelak ere jasotzen ditu.

Azaroaren 17ko FOM/3218/2009 Aginduaren bitartez –azaroaren 17ko FOM/2835/2012 Aginduak aldatua–, errepidezko garraio publikoaren sektoreko adin aurreratuko garraiolariek lanbideari uztea sustatzera bideratutako laguntza horietarako oinarri arautzaileak ezartzen dira, eta honako hauek finkatzen dira, besteak beste: onuradunei exijitzen zaizkien baldintza orokorrak eta garraio-jardueraren inguruko baldintzak, laguntzak emateko prozedura, balioespen-irizpideak eta ordainketarako baldintzak.

Ekitaldi honetan, Azpiegituren, Garraioaren eta Etxebizitzaren Estatu Idazkaritzaren 2016eko otsailaren 8ko Ebazpenaren bitartez, 2016ko otsailaren 12ko 37. EAOn argitaratu da jarduerari uzten dioten errepidezko garraiolari autonomoentzako laguntzen deialdia, 2016. urteari dagokiona, eta urte horretarako zehaztu da onuradunen gu-

txieneko adina 63 urtekoa edo goragokoa izanen dela.

Laguntzak emateko araubidea norgehiagoka da, eta Estatuko Aurrekontu Orokorren kargura egiten da. Aurtengo aurrekontuan jasotako gehieneko zenbatekoa 11.970.000 eurokoa da, deialdian ezarri bezala.

Eskabide horiek aurkezteko epea 2016ko martxoaren 13an amaitu zen, eta ebazpena eman eta argitaratzeko epea, une hauetan ebazteko dagoena, 2016ko abuztuaren 12an amaituko da.

Deialdi honetan, Garraio Zerbitzuak bi eskabideren izapidetze osoa kudeatu du, eta deialdian exijitzen diren erantzukizunpeko aitorpenak egiaztatu dira, Nafarroan egoitza duten hogeita bi garraiolari autonomo eskatzaileei dagokienez.

Azkenik, deialdia ebatzita eta Sustapen Ministerioak onuradunei laguntzak ordaintzeko, arestian aipatutako izapideak eginen dira eta baimenen baja izapidetuko da Enpresen eta Garraio Jardueren Erregistroan, bai eta jarduerari uzteko eta uko egiteko aitorpenak ere, eta baimenaren agiri diren txartelak ere jasoko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko ekainaren 24an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

---

## Galdera, toki entitateek 2016an langabeak kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegu deialdian ezarri den aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, toki entitateek 2016an langabeak kontratatzeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegu deialdian ezarri den aurrekontuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak parlamentu-galdera bat egin du (9-16/PES-00241), toki entitateek langabezian dauden pertsonak kontratatzeko aurrekontuaren betetzeari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 22ko 2715/2015 Ebazpenaren bitartez, Nafarroako toki entitateentzako diru-laguntzen kontzesioa arautzen duen deialdia onetsi zen, langabeak kontrata ditzaten interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko. Deialdi horren hasierako kreditua 2.800.000 eurokoa da; horietatik, 2.000.000 euro edozein kolektibotako langabeak kontratatzeko ziren eta 800.000 euro, berriz, gizarteratze-errenta jasotzen zuten pertsonak kontratatzeko.

Konferentzia Sektorialetik heldutako dirusarrera batzuk sortu direnez, deialdi horren gastuari beste 300.000 euro gehitu zaizkio, kolektibo orokorrerako; horrenbestez, deialdiaren amaierako kreditua 3.100.000 eurokoa izanen da.

Gaur egun, aurkeztutako eskabideak baloratzen eta izapidetzen ari dira. Hartara, jotzen da kontusailaren kreditua nahikoa dela kolektibo orokorreko langileak kontratatzeko aurkeztu diren eskabideei erantzuna eman ahal izateko. Gainera, kreditua dago gizarteratze-errentaren jasotzaileak kontratatzeko eskabideei erantzuten jarraitzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

# Galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei lotutako emergentzia egoeraren balorazioari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei lotutako emergentzia egoeraren balorazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera bat egin du (9-16/PES-00242) Emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei lotutako emergentzia egoeraren balorazioari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

1.- “Nola baloratu dute oinarrizko gizarte zerbitzuek emergentzia-egoera? Diru-sarrerez gain bestelako adierazlerik ere erabili al da? Hala bada, zein?”

Oinarrizko gizarte zerbitzuek, urriaren 2ko 10E/2015 Foru Aginduko laugarren oinarrian (c letran) aipatu bezala, honako baldintza hauek egiaztatu dituzte, familia-unitatearen diru-sarrerez gainera.

• 18 urte baino gehiago izatea.

• Erreferentziako gizarte zerbitzuaren oinarrizko eskualdeko herrietako batean erroldatuta egotea.

• Indar handiko edo nahi gabeko egoera ezustekoa izatea.

Bestalde, 20E/2015 Foru Aginduaren laugarren oinarrian (be letra) aipatzen den bezala, laguntzak “balorazio soziala egin ondoren emanen dira”. Horri dagokionez, esan beharra dago balorazio soziala, bai pertsonaren emergentziako egoera zehatzarena, bai daukan bazterketa-egoera orokorrarena, txosten sozialaren bitartez egiten dela.

Txosten soziala, Gizarte Laneko Diplomatuen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak onetsitako lanbidearen kode deontologikoan jaso bezala (3. artikulua), “irizpen teknikoa da, tresna dokumental gisa balio duena eta esklusiboki gizarte laneko diplomatuak egin eta sinatzen duena. Haren edukia heldu da behaketaren eta elkarrizketaren bidezko azterlanetik, non sintesia, xede den egoera, balorazioa, irizpen teknikoa eta esku-hartze profesionalerako proposamen bat jasotzen baita”.

2.- “Justifikazio-txostenen kopia eskatzen da; hain zuzen, Iruñekoa, Tuterakoa, Burlatakoa, Eguesibarkoa eta Ultzamakoa”.

Iruñeko, Tuterako, Burlatako, Eguesibarko eta Ultzamako justifikazio-txostenen kopia erantsi dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

# Galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei lotutako C.3, D.1 eta E.1 azpikategorien laguntzetan sartzen diren kontzeptuei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei lotutako C.3, D.1 eta E.1 azpikategorien laguntzetan sartzen diren kontzeptuei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera bat egin du (9-16/PES-00243), emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei lotutako C.3, D.1 eta E.1 azpikategorien laguntzetan sartzen diren kontzeptuei buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

2016ko maiatzaren 27ko idazkiaren bitartez, parlamentariak informazioa eskatu zuen emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei buruz.

Honako hau eskatzen du, zehazki:

• "Gutxienez ere hiru adibide, C3 azpikategoriako laguntzetan (Funtzionamendu pertsonal integraturako behar diren elementuak eskuratzeko laguntzak. Emandako guztizko zenbatekoa, 49.564,60 euro) sartzen diren kontzeptuenak.

• "Gutxienez ere hiru adibide, D1 azpikategoriako laguntzetan (Gizarteratzeari eta/edo laneratzeari laguntzea. Emandako guztizko zenbatekoa, 96.488,42 euro) sartzen diren kontzeptuenak.

• Gutxienez ere bost adibide, E1 azpikategoriako laguntzetan (Bestelakoak. Emandako guztizko zenbatekoa, 191.415,38 euro) sartzen diren kontzeptuenak."

Egindako galderei erantzun baino lehen, honako honi buruz informatu beharra daukagu:

1.- Toki entitateek aurkeztu behar zuten ereduan,"emergentzia sozialeko laguntzak emateko toki entitateentzako diru-laguntzaren" justifikazio ekonomikoari dagokionean, ez zen exijitzen zehaztea C.3 eta D1 kategorietarako izapidetutako laguntzen kontzeptua edo adibide zehatzak ematea, baizik eta kategoria, azpi-kategoria eta guztira emandako kopurua aipatzea, toki entitateek erabilitako justifikazio-artxiboan egiazta daitekeen bezala.

Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra

**Ayudas de Emergencia Social**
**2015**
**Servicios Sociales de Base**
**Justificación económica final del proyecto**

Servicio Social de Base:

| Datos generales de la Unidad Familiar | | | | | Datos específicos del titular o solicitante | | | | | Datos de la ayuda | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (A) Nº de Unidad Familiar (UF) | (B) Teléfono | (C) Nº de miembros en la UF | (D) Nº de menores en la UF | (E) Es perceptora de ayudas municipales en 2014 o 2015 | (F) DNI, NIE o Pasaporte | (G) Sexo | (H) Edad | (I) Nacionalidad | (J) País de nacimiento | (K) Categoría | (L) Subcategoría | (M) Cuantía total de la ayuda |
| | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | | |

2.- “Bestelako oinarrizko beharrak estaltzea” kategoriaren kasuan, hura kategoria orokor gisa eta apartekotasunean oinarritua dela ulertuta, toki entitateek bai justifikatu behar zuten izapidetzeak zein kontzeptu zehatz zuen helburu gisa.

Honako hauek dira kategoria honetan izapidetutako laguntzen adibide batzuk: Gizarte Segurantzarekiko zorrak, galdara konpontzea, etxebizitzaren oinarrizko ekipamendua, bizileku-baimenerako tasak ordaintzea, pasaporterako tasetako gastuak.

3.- Toki entitateek Eskubide Sozialetako Departamentuari aurkeztu beharreko justifikazio-eredua erantsi dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

| Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra | Ayudas de Emergencia Social<br>2015<br>Servicios Sociales de Base<br>Instrucciones de la justificación económica final del proyecto |
|---|---|
| 1º. Toda la información se recoge en la pestaña "Listado de beneficiarios y ayudas" | |
| 2º. Se deben rellenar las celdas en color | |
| 3º. Algunas de estas celdas son "desplegables" en los que hay que elegir la opción deseada | |
| 4º. Las columnas (A) a (E) contienen los datos generales de la unidad familiar beneficiaria, en las columnas (F) a (J) se recogen los datos del titular de la ayuda concedida; mientras que el resto de columnas a las ayudas concretas concedidas | |
| 5º. Si una unidad familiar tiene varios conceptos y subconceptos de ayudas, se deben rellenar tantas filas como subconceptos tengan (ver más abajo ejemplo) | |
| 6º. La columna (A) hace referencia al número de unidad familiar que se asigne desde el 1 hasta finalizar, ver tambien ejemplo | |
| 7º. En la columna (B) se solicita el teléfono de contacto de la unidad familiar con el objeto de poder contactar con la unidad familiara a efectos de evaluar este programa de ayudas | |
| 8º. En la columna (C) se debe poner el número total de miembros de la unidad familiar contando el titular y los menores | |
| 9º. En las columnas (K) y (L) se pondrán las categorías y subcategorías de los desplegables correspondientes, se debe tener encuenta que se se elige una categoria determinada (p.e. b) la subcategoría debe ser también del mismo grupo (p.e. b.1 o b.2) | |
| 10º. En el caso de utilizar la subcategoría "e.1) Otras", se debe rellenar la pestaña específica "Otras Necesidades" | |
| 11º. En la columna (M) se debe totalizar la cuantía de las ayudas por cada subconcepto que una unidad familiar perciba, de modo que la suma total de esta columna debe ser igual a la subvención realmente utilizada; es decir que si se conceden 20.000 euros para este programa y se gastan 18.000 euros, la suma de la columna (M) debe ser 18.000. | |

**EJEMPLO**

| Datos generales de la Unidad Familiar | | | | | Datos específicos del titular o solicitante | | | | | Datos de la ayuda | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (A) Nº de Unidad Familiar (UF) | (B) Teléfono | (C) Nº de miembros en la UF | (D) Nº de menores en la UF | (E) Es perceptora de ayudas municipales en | (F) DNI, NIE o Pasaporte | (G) Sexo | (H) Edad | (I) Nacionalidad | (J) País de nacimiento | (K) Categoría | (L) Subcategoría | (M) Cuantía total de la ayuda |
| 1 | 600 000 000 | 5 | 4 | No | 15990000A | Mujer | 49 | Española | Colombia | b) Energía | b.1.1) Pago de factura de suministro de electricidad | 150 |
| 1 | 600 000 000 | 5 | 4 | No | 15990000A | Mujer | 49 | Española | Colombia | b) Energía | b.1.3) Pago de factura de suministro de agua | 35 |
| 1 | 600 000 000 | 5 | 4 | No | 15990000A | Mujer | 49 | Española | Colombia | d) Educación e integración sociolaboral. | d.1) Apoyo a la incorporación social y/o laboral | 1000 |
| 2 | 699 999 999 | 3 | 1 | Si | 78978979J | Varón | 35 | Otra | Nigeria | a) Alojamiento | a.1.1) Pago del alquiler de la vivienda | 840 |
| 2 | 699 999 999 | 3 | 1 | Si | 78978979J | Varón | 35 | Otra | Nigeria | c) Nutrición y salud | c.2.1) Gastos de traslados o estancias derivados de enfermedad | 350 |
| 3 | 625 256 265 | 1 | 0 | No | 77777999B | Mujer | 60 | Española | España | e) Cobertura de otras necesidades básicas. | e.1) Otras | 1500 |

# Galdera, emergentzia sozialeko laguntzen eskatzaileen egoera ekonomikoa egiaztatzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, emergentzia sozialeko laguntzen eskatzaileen egoera ekonomikoa egiaztatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andreak galdera egin du Emergentzia sozialeko laguntzen eskatzaileen egoera ekonomikoa egiaztatzeari buruz (9-16/PES-00244). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

2016ko maiatzaren 27ko idazkiaren bitartez, parlamentariak zehazki honako galdera hauek egin zituen:

“Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek emergentzia sozialeko laguntzen eskatzaileen egoera ekonomikoa egiaztatzeko dituzten zailtasunei buruzko 2015eko PES 93ri emandako erantzunaren arabera, “ez da arazorik izan eskatzaileek banku-kontuetan daukaten diruarekin”. Horri buruz, hauxe jakin nahi dugu: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek nola egiaztatu dute eskatzaileek diru-sarrera txikiagoak dituztela lanbide arteko gutxieneko soldataren 2,5 halako baino, besterik gabe zerrenda soil bat erabilita, deialdian azaltzen den bezala? Geroago nolako egiaztapenak egiten ditu Departamentuak alderdi zehatz horri dagokionez espedientea itxi ahal izateko? Zein izan da diru-sarrera horiek konputatzeko modua? Gertatu al da inorekin, lanbide arteko gutxieneko soldataren 2,5 halako baino diru-sarrera txikiagoak edukita, kontu korrontean duten zenbateko bat, diru-sarrerei gehituta edo gehitu gabe, aipatu zenbatekotik gorakoa izatea?”

Egindako galderei erantzun baino lehen, honako hauek argitu behar ditugu:

2016ko PES 93 galderaren erantzunari dagokionez (ulertzen dugu 2016ko 93. idatzizko galdera dela, zeren eta 2015eko PES 93 delakoa Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen maiatzaren 3ko 189/2004 Foru Dekretuari buruzkoa baita), honako galdera honi buruz informatuko dugu: “Ba al da Oinarrizko Gizarte Zerbitzurik xede horretarako jasotako dirua gastatu ezin izan duenik, diru hori jasotzeko baldintzaren bat bete izana frogatu ezin izateagatik; esate baterako, eskatzaileek banku-kontuetan daukaten dirua?” “Toki entitateek eskubide sozialetako departamentuari aurkeztutako programaren ebaluazioan, ez dago jasota emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren ez-betetzea zor zaionik “eskatzaileek banku-kontuetan daukaten dirua ezin frogatzeari”.

Egindako galderei dagokienez, honako hau informatu behar dugu:

10E/2015 Foru Aginduaren hamabosgarren oinarriak (b letra) ondoko hau aipatzen du: “Entitatearen fede publikoa daraman idazkariaren edo pertsonaren ziurtagiria, emandako diru-laguntzaren guztirako gastuari eta entitatearen ekarpen ekonomikoari buruzkoa; eredu normalizatu baten araberako zerrenda gehituko zaio eta, hartan, honako hauek azalduko dira: pertsona onuradunen NANa, gizarte larrialdietako laguntzen kontzeptuak eta haien zenbatekoak, eta 4. oinarriko c) eta d) ataletan adierazitako baldintzak betetzen direla”. Horrenbeste, toki entitate bakoitzak, bere idazkariaren bidez edo entitatearen fede publikoa ematen duen pertsonaren bitartez, ondoko hauek ziurtatzen ditu: entitateak egindako ekarpen ekonomikoak eta onuradunek laugarren oinarriko c) eta d) ataletan aipatzen diren baldintzak betetzen dituztela; horien artean dago eskatzaileek lanbide arteko gutxieneko soldataren 2,5 halako baino diru-sarrera txikiagoak izatearena.

Toki entitateko idazkariak edo fede publikoa duen pertsonak egindako ziurtagiri horrekin, besteak beste egiaztatzen da, horrenbestez, emergentziako laguntzen onuradunek lanbide arteko gutxieneko soldataren 2,5 halako baino diru-sarrera txikiagoak dituztela.

Eskubide Sozialetako Departamentuak egindako egiaztapenekin dagokienez, jakinarazten dizut erabilitako prozedura honako hau izan dela:

Toki entitateek dokumentazio tekniko eta ekonomikoa justifikatu ondoren, Oinarrizko Laguntzaren eta Laguntza Komunitarioaren Atalak

egiaztatzen du aurkeztutako dokumentazioa bat datorrela eredu ofizialekin, eta diru-laguntzaren ordainketari eta, kasua bada, espedientearen itxierari buruzko honako gogoeta hauek aztertzen dira:

A) Exekuzio teknikoa: Aztertu da entitateak igorritako zerrenda normalizatua, proiektuaren amaierako justifikazio ekonomikoari dagokiona, non emandako laguntzak hartu dituzten pertsonak, kontzeptuak eta zenbatekoak biltzen baitira.

Honakoa egiaztatu da:

• Emandako laguntzen guztizko batura bat dator entitateko idazkariaren ziurtagirian justifikatutako gutizko gastuaren zenbatekoarekin.

• Familia unitate bakoitzari emandako laguntzen baturak ezin du gainditu ezarrita dagoen 3.000 euroko muga.

• Ez dira gainditzen familia-unitate bakoitzerako laguntzaren kategoria/azpi-kategoria bakoitzerako ezarritako mugak.

B) Betetze ekonomikoa. Idazkariaren 2015ean exekutatutako programaren gastuen ziurtagiria aztertu da, eta exekutatutako gastua egiaztatzen da bertan, bai eta Foru Komunitateak finantzatu beharreko kopurua eta toki entitateak, kasua bada, jarri beharrekoa ere.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 4. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

---

## Galdera, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei dagokienez itxi eta likidatu diren espedienteei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei dagokienez itxi eta likidatu diren espedienteei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andreak galdera egin du Emergentzia sozialeko 2015eko laguntzei dagokienez itxi eta likidatu diren espedienteei buruz (9-16/PES-00245). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

Egindako galdera honako hau da zehazki:

“Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako justifikazioa egiaztatu ondotik Departamentuak itxitako eta likidatutako espedienteen kopurua, itxitako espediente bakoitzari buruz adieraziz ea behar bezala justifikatu ote den % 100, ala osorik nahiz partzialki itzultzea exijitu ote den, eta egindako egiaztapenak”.

Eskubide Sozialetako Departamentuko kontseilariaren urriaren 2ko 10E/2015 Foru Aginduan diru-laguntzen deialdirako ezarritako oinarri arautzaileetako hamabosgarren oinarrian justifikatzeko modua ezartzen da.

Entitateek aurkeztutako justifikaziotik honako hau aztertzen da:

a) Exekuzio teknikoa

Entitateak igorritako zerrenda normalizatua, proiektuaren amaierako justifikazio ekonomikoari dagokiona, aztertzen da. Bertan emandako laguntzak hartu dituzten onuradunak, kontzeptuak eta zenbatekoak biltzen dira. Honako hau egiaztatzen da:

• Emandako laguntzen guztizko batura bat etortzea entitateko idazkariaren ziurtagirian justifikatutako gutizko gastuaren zenbatekoarekin.

• Familia unitate bakoitzari emandako laguntzen baturak ez gainditzea ezarrita dagoen 3.000 euroko muga.

• Ez gainditzea familia-unitate bakoitzerako laguntzaren kategoria azpi-kategoria bakoitzerako ezarritako mugak.

b) Exekuzio ekonomikoa.

Gastuei buruz idazkariak egindako ziurtagiria aztertu da. Bertan honako hauek aipatzen dira: gastuaren guztizkoa, Foru Komunitatearen ekarpena eta, kasua bada, toki entitateak jarritako zenbatekoa.

Horrenbestez, entitateak gauzak egoki justifikatu dituela jotzen denean, diru-laguntza ordaintzen da, salbu eta ordainketa aurreratua egin den kasuetan.

45 toki entitateek egoki justifikatu dute diru-laguntza.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

| TOKI ENTITATEA | Betetakoa / Ordaindutakoa | Espedientea ixtea | |
|---|---|---|---|
| Alloko Barrutiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | % 100 | Bai | |
| Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | % 49,3 | Bai | |
| Antzin-Ameskoako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | % 96,3 | Bai | |
| Itzaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | % 100 | Bai | |
| Aranguren Ibarreko Udala | % 100 | Bai | |
| Artaxoako Udala | % 100 | Bai | |
| Auñamendi Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | % 100 | Bai | |
| Aiegiko Udala | % 100 | Bai | |
| Barañaingo Udala | % 75,3 | Bai | |
| Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Xulapaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | % 72,0 | Bai | |
| Buñuel aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea | % 75,7 | Bai | |
| MONTEAGUDOKO UDALA | 9.339,84 | 9.339,84 | |
| MURCHANTEKO UDALA | 32.689,44 | 32.689,44 | |
| MURIETAKO UDALA | 14.009,76 | 14.009,76 | |
| MURILLO EL CUENDEKO UDALA | 9.339,84 | 9.339,84 | |
| MURILLO EL FRUTOKO UDALA | 9.339,84 | 9.339,84 | |
| OKOKO UDALA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| OIZKO UDALA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| OLEXUAKO UDALA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| ERRIBERRIKO UDALA | 28.019,52 | 26.462,88 | 1.556,64 |
| OLLOIBARKO UDALA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| ORISOAINGO UDALA | 9.339,84 | 8.561,52 | 778,32 |
| ORKOIENGO UDALA | 18.679,68 | 18.679,68 | |
| OTEITZAKO UDALA | 9.339,84 | 9.339,84 | |
| OTSAGABIAKO UDALA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| IRUÑEKO UDALA | 200.806,56 | 200.806,56 | |
| AZKOIENGO UDALA | 79.388,64 | 76.770,11 | 2.618,53 |
| PITILLASKO UDALA | 9.339,84 | 7.471,87 | 1.867,97 |
| SAN ADRIANGO UDALA | 32.689,44 | 32.689,44 | |
| SAN MARTIN UNXEKO UDALA | 14.009,76 | 14.009,76 | |
| SANTAKARAKO UDALA | 14.009,76 | 14.009,76 | |
| SARTAGUDAKO UDALA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| SESMAKO UDALA | 14.009,76 | 14.009,76 | |
| SORLADAKO UDALA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| SUNBILLAKO UDALA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| TAFALLAKO UDALA | 149.437,44 | 145.981,70 | 3.455,74 |
| TUTERAKO UDALA | 186.796,80 | 183.593,62 | 3.203,18 |
| UXUEKO UDALA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| ULTZAMAKO UDALA | 9.339,84 | 9.339,84 | |
| URROZKO UDALA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| Valtierrako Udala | 23.349,60 | 23.349,60 | |
| VIANAKO UDALA | 9.339,84 | 9.339,84 | |
| VILLAFRANCAKO UDALA | 23.349,60 | 23.349,60 | |
| ATARRABIAKO UDALA | 28.019,52 | 26.877,92 | 1.141,60 |
| ZIZUR NAGUSIKO UDALA | 18.679,68 | 16.889,46 | 1.790,22 |
| ZUBIETAKO UDALA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| ZUÑIGAKO UDALA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| ARANGUREN IBARREKO UDALA | 9.339,84 | 9.339,84 | |
| EGUESIBARKO UDALA | 88.728,48 | 88.728,48 | |
| DONEZTEBEKO UDALA | 9.339,84 | 9.339,84 | |
| DEIERRIKO UDALA | 4.669,92 | 4.669,92 | |

| Izena | Ematea | Ordaindutako kopurua | Ordaindu gabeko kopurua |
|---|---|---|---|
| CASAS NAPAL, CARLOS (LIZARRA) | 3.891,60 | 3.891,60 | |
| ARANDIGOIENGO KONTZEJUA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| ASTERAINGO KONTZEJUA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| ZIZUR TXIKIKO KONTZEJUA | 9.339,84 | 9.339,84 | |
| ARRADAKO KONTZEJUA | 9.339,84 | 8.950,68 | 389,16 |
| ZARIKIEGIKO KONTZEJUA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| CREACIONES FALCON SL. | 1.945,80 | 1.945,80 | |
| DISTRIBUCIONES EDASKA SL. | 1.945,80 | 1.945,80 | |
| DISTRIVISUAL S.L. | 40.213,20 | 38.764,66 | 1.448,54 |
| FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS | 13.620,60 | 13.620,60 | |
| FUNDACION GIZAKIA HERRITAR | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| GARCÍIA LINAREJOS, PEDRO MARÍA | 1.945,80 | 1.945,80 | |
| HOSPEDERIA CHAPITEL SL. | 3.243,00 | 3.243,00 | |
| HOSTELERA PLAZA DE LOS FUEROS DE LOS FUEROS SL. | 3.891,60 | 3.891,60 | |
| HOTEL TXIMISTA SL | 5.188,80 | 5.188,80 | |
| ISTURIZ CARO, JAVIER | 2.594,40 | 2.594,40 | |
| AMESKOAKO LIMITACIONES MENDIKO BATZARRA | 9.339,84 | 9.339,84 | |
| LARRAUNGO UDALA | 9.339,84 | 8.172,30 | 1.167,54 |
| MACONTU SLL. | 3.891,60 | 3.891,60 | |
| JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEA | 65.378,88 | 65.378,88 | |
| AGOIZKO IRATI HIRI HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| ALTSASU, OLAZTI, ZIORDIKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA | 56.039,04 | 53.626,25 | 2.412,79 |
| CINTRUENIGOKO ETA FITEROKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA | 28.019,52 | 28.019,52 | |
| ZANGOZAKO ESKUALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA | 107.408,16 | 107.408,16 | |
| ZARRAKAZTELUKO OINARRIZKO BARRUTIKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA | 60.708,96 | 60.708,96 | |
| LOS ARCOSKO BARRUTIKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA | 9.339,84 | 9.339,84 | |
| LEITZA, GOIZUETA, ARESO ETA ARANOKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA | 9.339,84 | 9.339,84 | |
| ERRIBERRIKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| AZKOIENGO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| ELIZAGORRIA, LODOSA, MENDABIA, SARTAGUDA ETA SESMAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| FUSTIÑANAKO SAN FRANTZISKO XABIERKOA EGOITZAREN MANKOMUNITATEA | 4.669,92 | 4.669,92 | |
| ANDOSILLA, AZAGRA, CÁRCAR ETA SAN ADRIANGO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA | 18.679,68 | 18.679,68 | |
| MARIÑELARENA IRURZUN, RAUL | 3.891,60 | 3.891,60 | |
| PALMATRANS SIGLO XXI SL. | 2.594,40 | 1.102,62 | 1.491,78 |

| Izena | Ematea | Ordaindutako kopurua | Ordaindu gabeko kopurua |
|---|---|---|---|
| CINTRUÉNIGOKO SAN FRANCISCO DE ASÍS UDAL PATRONATUA | 23.349,60 | 21.170,30 | 2.179,30 |
| AZKOIENGO SAN MIGUEL ZAHAR ETXEA - DON MIGUEL REVUELTA | 9.339,84 | 9.339,84 | |
| FUNESKO SAN MIGUEL EGOITZA | 9.339,84 | 9.339,84 | |
| | | | |
| **Emandakoa, guztira** | **2.691.949,44** | **2.647.913,24** | **44.036,20** |

Guztira 105 entitateri emandakoaren % 100 ordaindu zitzaien, eta 24 entitatek emandako kopuruaz beheitiko ordainketa doitua izan zuten; guztien artean, 44.036,20 euro jaso dituzte.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an.

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

# Galdera, Toki entitateek 2016an langabeak kontratatzeko asmoz Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egin duen enplegu-deialdiaren emaitzei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Toki entitateek 2016an langabeak kontratatzeko asmoz Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egin duen enplegu-deialdiaren emaitzei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andreak galdera egin du Toki entitateek 2016an langabeak kontratatzeko asmoz Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egin duen enplegu-deialdiaren emaitzei buruz (9-16/PES-00250). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 22ko 2715/2015 Ebazpenaren bitartez, Nafarroako toki entitateendako diru-laguntzen kontzesioa arautzen duen deialdia onetsi zen, langabeak kontrata ditzaten interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko.

Gaur egun, aurkeztutako eskabideak baloratzen eta izapidetzen ari dira. Honako hauek dira une honetara arte emandako diru-laguntzak:

| ESPEDIENTEA | ENTITATE ONURADUNA | ESKAERAREN DATA | Proposamenaren data | Langile kopurua | Emandako diru-laguntza |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | ZIZURKO UDALA | 2016-01-19 | 2016/03/30 | 2 | 11.988,00 |
| 2 | TORRES DEL RIOKO UDALA | 2016/01/26 | 2016/04/20 | 1 | 5.994,00 |
| 3 | BERAKO UDALA | 2016/01/28 | 2016/03/30 | 1 | 3.580,65 |
| 5 | ARMAÑANTZASKO UDALA | 2016/01/29 | 2016/03/30 | 1 | 2.997,00 |
| 6 | ITZAKO UDALA | 2016/02/02 | 2016/03/30 | 2 | 7.992,00 |
| 7 | LEKUNBERRIKO UDALA | 2016/02/02 | 2016/03/30 | 1 | 5.994,00 |
| 8 | DEIERRIKO UDALA | 2016/02/03 | 2016/03/30 | 1 | 5.994,00 |
| 9 | ZUÑIGAKO UDALA | 2016/02/03 | 2016/04/20 | 1 | 4.123,87 |
| 10 | ANDIA ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA | 2016/02/03 | 2016/04/20 | 1 | 6.228,00 |
| 11 | BEÁSOAIN-EGILLORKO KONTZEJUA (OLLO) | 2016/02/04 | 2016/03/30 | 2 | 11.988,00 |
| 12 | CAPARROSOKO UDALA | 2016/02/05 | 2016/04/12 | 4 | 23.976,00 |
| 13 | FALTZESKO UDALA | 2016/02/05 | 2016/04/12 | 1 | 5.994,00 |
| 14 | JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEA | 2016/02/05 | 2016/04/12 | 4 | 17.982,00 |
| 15 | SUNBILLAKO UDALA | 2016/02/08 | 2016/04/12 | 1 | 2.997,00 |
| 17 | AIEGIKO UDALA | 2016/02/11 | 2016/04/22 | 2 | 11.988,00 |
| 18 | ARANTZAKO UDALA | 2016/02/15 | 2016/04/25 | 2 | 5.994,00 |
| 19 | MURCHANTEKO UDALA | 2016/02/16 | 2016/04/20 | 4 | 23.976,00 |
| 20 | URROZKO UDALA | 2016/02/17 | 2016/04/20 | 1 | 3.996,00 |
| 21 | Valtierrako Udala | 2016/02/17 | 2016/04/20 | 1 | 2.247,75 |
| 22 | FALTZESKO UDALA | 2016/02/17 | 2016/04/20 | 5 | 29.970,00 |
| 23 | AZAGRAKO UDALA | 2016/02/18 | 2016/04/22 | 6 | 35.964,00 |
| 24 | VILLAFRANCAKO UDALA | 2016/02/19 | 2016/04/22 | 2 | 11.988,00 |
| 25 | ELIZAGORRIKO UDALA | 2016/02/19 | 2016/04/22 | 1 | 1.498,50 |
| 26 | KASEDAKO UDALA | 2016/02/22 | 2016/04/22 | 3 | 17.982,00 |
| 27 | BERIAINGO UDALA | 2016/02/23 | 2016/04/25 | 3 | 17.982,00 |
| 28 | BERIAINGO UDALA | 2016/02/22 | 2016/04/22 | 2 | 11.988,00 |
| 29 | ARROIZKO UDALA | 2016/02/24 | 2016/04/22 | 3 | 17.982,00 |
| 30 | ABERINGO UDALA | 2016/02/25 | 2016/05/13 | 2 | 11.988,00 |
| 31 | TUTERAKO UDALA | 2016/02/25 | 2016/05/27 | 10 | 56.943,00 |
| 32 | MENDAZAKO UDALA | 2016/02/29 | 2016/04/22 | 1 | 5.994,00 |
| 33 | MURILLO EL CUENDEKO UDALA | 2016/03/02 | 2016/05/13 | 2 | 11.988,00 |
| 34 | ELOKO UDALA | 2016/03/02 | 2016/05/27 | 2 | 11.988,00 |
| 35 | OLAIBARKO UDALA | 2016/03/02 | 2016/05/13 | 3 | 17.982,00 |
| 36 | EZKABARTEKO UDALA | 2016/03/02 | 2016/05/13 | 6 | 35.964,00 |
| 37 | UHARTE-ARAKILGO UDALA | 2016/03/01 | 2016/05/13 | 1 | 2.587,41 |
| 38 | FUSTIÑANAKO UDALA | 2016/03/02 | 2016/05/13 | 3 | 17.982,00 |
| 39 | ORKOIENGO UDALA | 2016/03/02 | 2016/05/27 | 5 | 29.970,00 |
| 40 | RIBAFORADAKO UDALA | 2016/03/02 | 2016/05/19 | 5 | 29.970,00 |
| 41 | ETXAURIKO UDALA | 2016/03/02 | 2016/05/13 | 1 | 5.994,00 |
| 42 | Fiteroko Udala | 2016/03/03 | 2016/05/13 | 2 | 11.988,00 |

| ESPEDIENTEA | ENTITATE ONURADUNA | ESKAERAREN DATA | Proposamenaren data | Langile kopurua | Emandako diru-laguntza |
|---|---|---|---|---|---|
| 43 | ZIZURKO UDALA | 2016/03/03 | 2016/05/27 | 4 | 23.976,00 |
| 44 | ELGORRIAGAKO UDALA | 2016/03/03 | 2016/05/13 | 1 | 5.994,00 |
| 45 | BAKEDAOKO KONTZEJUA (AMESKOABARRENA) | 2016/03/04 | 2016/05/13 | 3 | 10.789,20 |
| 47 | ZUBIETAKO UDALA | 2016/03/04 | 2016/05/13 | 1 | 5.994,00 |
| 48 | ZUBIETAKO UDALA | 2016/03/04 | 2016/05/13 | 1 | 5.994,00 |
| 49 | AMESKOABARRENGO UDALA | 2016/03/04 | 2016/06/01 | 1 | 5.994,00 |
| 50 | ITURENGO UDALA | 2016/03/04 | 2016/06/21 | 1 | 5.994,00 |
| 51 | ITURENGO UDALA | 2016/03/04 | 2016/05/13 | 1 | 5.994,00 |
| 52 | ESAKO UDALA | 2016/03/04 | 2016/06/01 | 1 | 5.994,00 |
| 53 | LAKABEKO KONTZEJUA (ARTZIBAR) | 2016/03/07 | 2016/06/08 | 3 | 17.982,00 |
| 54 | BERIAINGO UDALA | 2016/03/07 | 2016/06/01 | 1 | 2.997,00 |
| 55 | MENDABIAKO UDALA | 2016/03/09 | 2016/06/01 | 6 | 32.967,00 |
| 56 | MORENTINGO UDALA | 2016/03/08 | 2016/06/01 | 1 | 2.997,00 |
| 57 | BIDASOA-BERROARAN ADMINISTRAZIO BATZARRA | 2016/03/09 | 2016/06/01 | 1 | 5.994,00 |
| 58 | ARELLANOKO UDALA | 2016/03/09 | 2016/06/01 | 2 | 8.991,00 |
| 59 | LODOSAKO UDALA | 2016/03/09 | 2016/06/01 | 2 | 11.988,00 |
| 60 | ZIZUR NAGUSIKO UDALA | 2016/03/10 | 2016/06/01 | 3 | 14.709,27 |
| 61 | IRUNBERRIKO UDALA | 2016/03/10 | 2016/06/01 | 2 | 11.988,00 |
| 62 | LEKUNBERRIKO UDALA | 2016/03/10 | 2016/06/02 | 1 | 5.994,00 |
| 63 | ETXARRI ARANAZKO UDALA | 2016/03/11 | 2016/06/02 | 2 | 11.988,00 |
| 64 | ELIZAGORRIA, LODOSA, MENDABIA, SARTAGUDA ETA SESMAKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA | 2016/03/11 | 2016/06/07 | 1 | 2.997,00 |
| 65 | LERGAKO UDALA | 2016/03/14 | 2016/06/02 | 1 | 4.495,50 |
| 66 | MARTZILLAKO UDALA | 2016/03/15 | 2016/06/02 | 2 | 11.988,00 |
| 67 | AIBARKO UDALA | 2016/03/14 | 2016/06/02 | 1 | 3.114,00 |
| 68 | BAZTANGO UDALA | 2016/03/15 | 2016/06/07 | 3 | 8.991,00 |
| 69 | ABARTZUZAKO UDALA | 2016/03/15 | 2016/06/02 | 1 | 3.596,40 |
| 70 | BAZTANGO UDALA | 2016/03/16 | 2016/06/07 | 1 | 2.997,00 |
| 71 | LARRASOAÑAKO KONTZEJUA (ESTERIBAR) | 2016/03/16 | 2016/06/21 | 3 | 14.985,00 |
| 73 | ARASKO UDALA | 2016/03/16 | 2016/06/21 | 1 | 3.980,02 |
| 74 | AMESKOAKO LIMITACIONES MENDIKO BATZARRA | 2016/03/16 | 2016/06/02 | 1 | 4.195,80 |
| 75 | ZUDAIRIKO KONTZEJUA (AMESKOABARRENA) | 2016/03/16 | 2016/06/08 | 1 | 5.994,00 |
| 76 | BEINTZA-LABAIENGO UDALA | 2016/03/16 | 2016/06/07 | 1 | 5.994,00 |
| 77 | SESMAKO UDALA | 2016/03/17 | 2016/06/21 | 6 | 35.964,00 |
| 78 | GENEVILLAKO UDALA | 2016/03/17 | 2016/06/07 | 1 | 3.980,02 |
| 79 | MONCAYOKO UR MANKOMUNITATEA | 2016/03/17 | 2016/06/07 | 1 | 3.996,00 |
| 80 | BAZTANGO UDALA | 2016/03/18 | 2016/06/07 | 1 | 2.997,00 |
| 81 | UHARTEKO UDALA | 2016/03/18 | 2016/06/08 | 1 | 5.994,00 |
| 83 | FUNESKO UDALA | 2016/03/22 | 2016/06/21 | 6 | 35.964,00 |

| ESPEDIENTEA | ENTITATE ONURADUNA | ESKAERAREN DATA | Proposamenaren data | Langile kopurua | Emandako diru-laguntza |
|---|---|---|---|---|---|
| 84 | ARRADAKO KONTZEJUA (MURILLO EL CUENDE) | 2016/03/22 | 2016/06/22 | 1 | 5.994,00 |
| 85 | CABREDOKO UDALA | 2016/03/23 | 2016/06/22 | 1 | 2.997,00 |
| 86 | NOAINGO UDALA (ELORTZIBAR) | 2016/03/23 | 2016/06/22 | 6 | 35.964,00 |
| 87 | LESAKAKO UDALA | 2016/03/23 | 2016/06/22 | 2 | 11.988,00 |
| 88 | OTEITZAKO UDALA | 2016/03/23 | 2016/06/22 | 1 | 2.852,15 |
| 89 | OTEITZAKO UDALA | 2016/03/23 | 2016/06/22 | 1 | 5.994,00 |
| 90 | BAZTANGO UDALA | 2016/03/23 | 2016/06/07 | 1 | 5.994,00 |
| 91 | BEINTZA-LABAIENGO UDALA | 2016/03/29 | 2016/06/07 | 1 | 5.994,00 |
| 95 | MILAGROKO UDALA | 2016/03/31 | 2016/06/24 | 6 | 33.716,25 |
| 97 | EL BUSTOKO UDALA | 2016/04/01 | 2016/06/24 | 1 | 3.272,72 |
| 98 | ANTZINGO UDALA | 2016/04/01 | 2016/06/24 | 1 | 5.994,00 |
| 99 | LEGARIAKO UDALA | 2016/04/02 | 2016/06/24 | 2 | 11.988,00 |
| 100 | OLEXUAKO UDALA | 2016/04/02 | 2016/06/24 | 1 | 5.994,00 |
| 101 | ETAIUKO UDALA | 2016/04/02 | 2016/06/24 | 1 | 5.994,00 |
| 102 | BUÑUELGO UDALA | 2016/04/04 | 2016/06/24 | 6 | 35.964,00 |
| 104 | FIGAROLGO UDALA (ZARRAKAZTELU) | 2016/04/04 | 2016/06/24 | 1 | 5.994,00 |
| 106 | ERROIBARKO UDALA | 2016/04/04 | 2016/06/24 | 2 | 11.988,00 |
| 107 | ABAIGARKO UDALA | 2016/04/04 | 2016/06/24 | 1 | 5.994,00 |
| 108 | MURIETAKO UDALA | 2016/04/04 | 2016/06/24 | 2 | 11.988,00 |
| 116 | Valtierrako Udala | 2016/04/05 | 2016/06/24 | 1 | 5.994,00 |
| **Guztira:** | | | | **188** | **1.152.922,51** |

Gaur egun, ez dago ukatutako inongo eskaerarik. Onartu gabeko espediente bakarra dago, Urdazubiko Udalari dagokiona: deialdian ezarritako epetik kanpo aurkezteagatik baztertu zen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an.

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

# Galdera, gizarteratzeko eta laneratzeko errentaren kudeaketa-sistemen hobekuntzari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gizarteratzeko eta laneratzeko errentaren kudeaketa-sistemen hobekuntzari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andreak galdera egin du Gizarteratzeko eta laneratzeko errentaren kudeaketa-sistemak hobetzeari buruz (9-16/PES-00251). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

2016ko maiatzaren 27ko idazkiaren bitartez, parlamentariak honako informazio hau eskatu du:

Gizarteratzeko eta laneratzeko errentari buruzko 2015eko PES 70 galderari erantzunez, adierazi da errebisatu eta hobetu eginen direla kudeaketa-sistemak, administrazio-sinpletze handiagoa lortzeko.

a) Zer egin da arlo horretan?

b) Erantzunean aipatutako lantaldeek nola funtzionatu dute? Bilera-akten kopia, baldin eta bilerarik egin bada.

c) Esaten denez, Errealitate Sozialaren Behatokiak aurretiazko azterlan bat egin behar zuen, ekin nahi zaion gizarteratze-errentaren erreformari buruzkoa. Azterlan horren kopia jaso nahi dugu.

a) eta b) galderei erantzun baino lehen, argitu beharra dago ezen 2015eko PES 70 galderari emandako erantzunak aipatzen zuela Departamentuak "gizarteratze-errentaren erregulazioa berrikusteko" planteatzen zituen hiru helburuak honako hauek zeudela: "Kudeaketa-prozedurak berrikusi eta hobetzea, administrazioen artean zereginak banatzea eta sistema telematiko egokiak erabiltzea". Helburu horri beste bi gehitu behar zaizkio: bata epe laburrekoa (gizarteratze-errentari buruzko araudi indarduna aldatzeko proposamena) eta bestea epe luzekoa (diru-sarrerak bermatzeko eredua berrikustea). Hiru helburu horiek beren osotasunean lortzeko, horri guztiari ekiteko moduari buruz informatu zen. Honako hau izanen litzateke, eskema gisa emanda:



Halaber, aipatzen zen ezen prozedurak berrikusi eta berehala edo epe laburrean hobetzeko helburua, a) eta b) galderetan aipatzen dena, aurreko eskemako 1.2 eta 2.1 ekintzen bitartez eramanen litzatekeela aurrera; izan ere, 1.1 ekintzak Departamentuaren antolamendu-berrantolaketarekin batera gauzatu ziren eta 2.3 eta 2.4 ekintzak, berriz, egungo araudia berrikusteko prozesu parte-hartzailearen bidez eta proposamen berrian gauzatu direla. 3. ekintzaren emaitza aipatutako parlamentariak eskatu duen txostenean dago (c) galdera).

Horrenbestez, aipatutako 1.2 eta 2.1 ekintzei buruz informatuko dugu.

a) Zer egin da arlo horretan?:

Alde batetik (1.2 ekintza), barne hobekuntzarako hiru talde eratu dira, zeinetan parte hartu baitute Diru-sarreren Bermearen eta Prestazio Ekonomikoen Ataleko teknikariek eta administrariek; horrek berarekin ekarri du prozedurak argi hobetzea (nahiz eta langile gutxiago eduki, honako hauek lortu dira, besteak beste: balorazio denborei eutsi zaie eta hobetu ere egin dira; informazioa eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekiko komunikazioa hobetu da, eta horrekin espedienteen aurkezpena ere hobetu da; izapideak informatizatu dira, zeren eta orain arte eskuz egiten baitziren).

Lehenengo lantaldea zentratu da gizarteratzeerrentaren espedienteen balorazioa egiteko modua homogeneizaziorako barne-irizpideen berrikuspenean. 5 lan-bilera egin dituzte, abenduaren 4an hasi eta apirilaren 5era arte. Gai ugari ekin diete. Honako hauek dira landutako alderdiak, besteak beste: Gurutze Gorriaren ikastaro bekatuak egiteko diru-sarrerak kontuan hartzea; seme-alaben zaintzarako eszedentzia, familiaren babesik gabe; antzeko pentsio edo prestazioak aitortzeko prozedurak, atzera-eraginarekin; Foru Ogasunarekiko zorren ordainketa zatikatzea eta zorrak konpentsatzea; errenta eskuratzea interpretatzeari buruzko irizpideek adingabeak familiarekin biltzeko kasuetan norberaren kargura dauden adingabeen salbuespena egiten da; errentak emateko ebazpenetan ondarearen aipamena egitea; ondotik jasotako diru-sarreren tratamendua; aldi bat eta erdiaren sistema aplikatzea. (5 saioen aktak erantsi dira – I. eranskina). Gainera, hori guztia gizarteratze-errentaren kudeaketarako eskuliburura eraman da.

Bigarren taldeak oinarrizko gizarte zerbitzuetako langileekiko eta gizarteratze-errentaren onuradunekiko informazioari buruz eta komunikazioari buruz lan egin du. Guztira, 7 bilera egin dituzte, abenduaren 11n hasita. Landutako gaien artean, honako hauek aipatu behar dira: Departamentuko Informazio Atalarekiko koordinazioa; Herritarrentzako Arreta Bulegoarekiko harremana, gizarteratze-errentari buruz nolako informazioa ematen duten ezagutzeko eta haiekin koordinatzeko; oinarrizko gizarte zerbitzuak/auzo-unitateak daukan informaziorako sarbidea, barne webaren bitartez; espedienteen kudeaketarako Tramit@ kudeatzailea sustatzea eta eskuratzea; jendea artatzeko ordutegiak ezartzea, eta abar (II. eranskinean aktak gehitu ditugu).

Hirugarren lantaldea prozeduretan zentratu da berariaz. 4 aldiz bildu da, urtarrilaren 13tik aurrera. Honako hauek daude landu dituen gaien artean: Sistemen Kudeaketarako Atalarekin modu koordinatuan lan egitea hobera egiteko eta aldaketa-prozedura baloratzeko ondorengo zirkuitua guztiz jasotzea; aldaketetarako bestelako diru-sarreren erlaitzak jasotzea (ondorengo aldaketetan konputagarri diren diru-sarrerak grabatuta uzteko); departamentuaren barruan ordainketa-prozesuari buruz lan egitea (hura ezagutzea eta ulertzea, akatsak saihesteko); oinarrizko gizarte zerbitzuarekiko komunikazioa hobetzea, dokumentazioa bikoiztu gabe bidaltzeko; dokumentuen kudeaketaren erabilera bultzatzea eta abar (III. eranskinean aktak gehitu ditugu).

2.1 ekintzari dagokionez, 7 lan bilera egin dira azaroan hasi eta urtarrilera bitarte (bat Lizarran, barruti osorako; bi Iruñean, udal horretako auzounitateetarako; bat Zizurren, Iruñerrirako; bat Tuteran, barruti osorako, beste bat Tafallan, bere barrutirako eta, azkenik, bat Iruñean, Iparraldeko barrutietarako). Lan-bilera horietan gizarteratzeerrenta kudeatzeko eskuliburuarekin lan egin da, eta honako gai hauek landu dira:

II. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Diru-Sarreren Bermearen eta Prestazio Ekonomikoen Atalaren artean eginkizunak banatzea.

III. Gizarteratze-errentarako erreferentziako araudia eta kudeaketa-prozedura (120/1999 FD, 1/2012 FL eta haien aldaketak, 58/2012 FA eta 193/2013 FA.

IV. Erantsi beharreko dokumentazioa argitzea (eskaria, txosten soziala, ezinbestekoa ez den dokumentazioa, beharrezkoa dena eta beharrezkoa ez dena).

V. Eskuratzeko baldintzak eta haiek egiaztatzea.

VI. Eskuratzeko bide berezia eta hura egiaztatzea.

VII. Berritzeko bide berezia eta hura egiaztatzea.

VIII. Gizarteratzerako akordioa

IX. Aldi bat eta erdiaren sistema.

Azkenik, eta PES 70 galderaren erantzunean jasota ez badago ere, sistema telematikoen hobekuntzarekin jarraitu da bi bidetatik, TRAMIT@ sistemaren bidez; izan ere, horrek aukera ematen du prestazioa ehuneko ehun modu telematikoan izapidetzeko. Apirilean 6 oinarrizko gizarte zerbitzuri eman zaie prestakuntza, eta irailerako aurreikusita dago beste 10 zerbitzutara zabaltzea. Lurralde osoan zabaldu da kudeaketa dokumentalerako aplikazioa, zeinak aukera ematen baitu dokumentazioa modu telematikoan igortzeko, eta, azkenean, Foru Ogasunari laguntza ematen jarraitzen da, SIPSS sistemen eta Ogasunaren datuen elkarreragingarritasunerako.

b) Erantzunean aipatutako lantaldeek nola funtzionatu dute? Bilera-akten kopia, baldin eta bilerarik egin bada.

Aurreko galderari erantzun zaio, barne hobekuntzarako taldeei dagokienez. Araudiaren erreformarekin zerikusia duen guztiari dagokionez (aurreko eskemako 2.2 eta 2.3 ekintzak), nahiz eta ulertu hori ez dela parlamentu-galdera honen xedea, jasota utzi nahi dugu ezen Departamentuak hasi duen araudiaren erreforma izapidetzean parte hartzeko izapide formala hasi baino lehen eta Programa Akordioan oinarrituta, kontsulta-prozesu bat egin zela, eta hartan hainbat eragilek parte hartu zutela: batetik, gizarte zibileko entitateak (hiru bilera); bestetik, Foru Komunitate osoko oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalak (hiru bilera). Azkenik, hiru foku-talde antolatu ziren, gizarteratze-errenta jasotzen duten pertsonekin. Proposamenak eztabaidatu eta ekarpen guztiak jaso ziren.

c) Esaten denez, Errealitate Sozialaren Behatokiak aurretiazko azterlan bat egin behar zuen, ekin nahi zaion gizarteratze-errentaren erreformari buruzkoa. Azterlan horren kopia jaso nahi dugu.

Eskatutako azterlana erantsi dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

(Oharra: Aipatutako eranskinak eskuragarri dituzte foru parlamentariek, parlamentu-kudeaketarako Ágora sisteman.)

## Galdera, Ezgaitasunaren Arreta Integralerako Las Hayas zentroari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ezgaitasunaren Arreta Integralerako Las Hayas zentroari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Maribel García Malo andreak galdera egin du Ezgaitasunaren Arreta Integralerako Las Hayas zentroari buruz (9-16/PES-00252). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

Departamentuak gogoan al darabil berrantolamenduren bat egitea Ezgaitasunaren Arreta Integralerako Las Hayas zentroan, beste jarduketa batzuen artean ekarriko duena zentro horretako egoiliarrak beste batzuetara eramatea, esaterako Erronkari Ibarra zentrora? Baiezkoan, Departamentuak ezarritako berrantolamendu-planaren kopia jaso nahi dugu.

Informatu beharra daukagu ezen, gaur den egunean, ez dagoela aurreikusita Sarrigurengo Las Hayas eta Iruñeko Valle de Roncal egoitzetako eta eguneko zentroetako egoiliarrak modu orokorrean beste leku batzuetara eramatea dakarren inongo berrantolamendurik.

Hala eta guztiz ere, kasuko atalari eta bulegoari dagokie, haiek arautzen dituen arauan ezarritako eginkizunen arabera, antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea, bai eta zerbitzu horietan jada daudenen eta zentroetan sartzea eskatzen dutenen egungo beharrak baloratzea ere. Horrek berarekin ekar dezake batzuetan leku-aldatze proposamen bat egitea gizarte zerbitzuetako zorroan ezarritako adina gainditzen duten pertsonei, edo desgaitasuna duten pertsonak artatzen dituzten zentroen artean leku-aldatzeren bat egitea. Horrekin, kasu guztietan, erantzun homogeneo bat eman nahi da, adina, bizitokiaren hurbiltasuna, lututako jokabide-nahasteak eta bestelako arrazoi teknikoak irizpide hartuta; izan ere, halakoak baloratu ahalko dira eguneko zentro zehatzen batean toki jakinen bat berrantolatzeko. Erabakiak beti hartzen dira kasuaren banakako balorazioa eginda, zentroetako profesionalek aldeko txostena emanda eta familiei informazioa eman eta haien adostasuna lortu ondoren. Beharrezkoa da, planteatzen diren beharrak direla eta, ematen diren zerbitzuak optimizatzea, lehentasuna emanez erabiltzaile bakoitza egoteari bere beharrak hobekien aseta dauden tokian.

Erabiltzaileen balizko lekualdatzeak aztertzen ari baldin bada, jakin nahi dugu zenbat erabiltzaileri eraginen dion neurri horrek, lekualdatze horiek zer irizpiderekin eginen liratekeen, zer txosten tekniko eta medikotan oinarrituko den irizpide horien betetzea, eta ea lekualdatze horiek erabiltzaileen familien oniritziarekin eginen diren ala departamentuak inposatuta eginen diren.

Esan den bezala, ez da jarduketa orokor bat aurreikusi, pertsona kopuru zehatz bat inplikatzen duenik. Kasu guztietan, zentroa edo zerbitzua aldatzea dakarren aldaketa puntual oro, zentroko profesionalen eta Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzu Atalaren txosten teknikoak erabiliz egiten da. Zentroen arteko leku-aldatzeak, familiak eskatuak ez direnean, aurrez familiei jakinarazten dizkiete bai zentroak berak, bai Atalak aurrez aurre. Entzunaldia ematen da eta kokaleku-aldaketa batek dakartzan kezka logikoei erantzuten zaie, betiere edozein erabaki birpentsatzeko aukera utziz, baldin eta egokitzeari buruzko txostenak aldekoak ez badira. Tokiak zentroetan esleitzea eta berrantolatzea Agentziaren ahalmen bat da, eta beti gaur egun artatzen diren pertsonen kolektibo osoaren onerako jardunen du, zentro guztietan giza kalitateko eta kalitate profesionaleko irizpide berak erabiliz. Baina, halaber, egoki erantzun behar die esleitutako toki berriak gaur egun halako zerbitzuak behar dituzten kasuek eskatzen dituzten adin-profilari eta konplexutasunari egokitzeko irizpideak betetzeari.

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Desgaitasunaren Atalaren eta Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zentroen Bulegoaren eskumenak arautzen dituzten dekretua eta foru agindua erantsi ditugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an.

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

172/2015 Foru Dekretua, irailaren 3koa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren Estatutuak onesten dituena.

Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Atalak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Gizarte zerbitzuen sistema publikoko zentroetan, desgaitasuna duten pertsonen sarrera antolatu, planifikatu eta kudeatzea.

b) Desgaitasuna edo eritasun mentala duten pertsonei arreta emateko gizarte eta osasun zerbitzu eta zentroak koordinatu eta kudeatzea eta haiei sostengu eta aholku ematea.

c) Baterako lan programetan osasun arloarekin koordinatzea.

d) Zerbitzuek dituzten laguntza beharrak baloratzea, profilei, zainketei, jarduerei eta esku hartzeko programei dagozkienak, Zuzendariordetzako beste atal batzuekin elkarlanean.

e) Desgaitasuna edo eritasun mentala duten pertsonentzako zerbitzuei loturiko prestazio ekonomikoen antolaketa, tramitazioa eta kudeaketa koordinatzea.

f) Bere eskumenen esparruko espedienteak kudeatu eta artxibatzea.

g) Azaldutako eginkizunen antzekoa edo osagarria izanik, beste administrazio unitateren bati espresuki esleitu ez zaiona, eta eskuordetzen edo agintzen zaion beste edozein eginkizun.

305/2015 Foru Agindua, abenduaren 15ekoa, Eskubide Sozialetako Kontseilariak emana, Departamentu horretako eta haren Erakunde Autonomoetako bulegoen eta atala baino maila beherago-ko unitateen egitura garatzen duena.

2015eko abenduaren 18ko 251. NAOn argitaratutako testua. Akats zuzenketa 2015-12-29ko NAOn argitaratu zen.

Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zentroen Bulegoa Desgaitasuna duten Pertsonentzako

Zerbitzu Atalari atxiki zaio, eta eginkizun hauek izanen ditu:

a) Desgaitasun fisikoa, adimenaren desgaitasuna eta gaixotasun mentala duten pertsonen espedienteak baloratu, kudeatu eta tramitatzea.

b) Itxaron zerrendak aztertzea eta irizpide objektiboak ezartzea, urritasun motaren, egoeraren larritasunaren eta kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera eskariak lehenesteko.

c) Eskaera aztertzea eta jarduketa hobetzeko proposamenak egitea.

d) Desgaitasun fisikoa, adimenaren desgaitasuna eta gaixotasun mentala dutenentzako zentro berekietako eta itunduetako diru-sarrerak kudeatzea, hain zuzen, egoitza-zentroetakoak, eguneko zentroetakoak, gaueko zentroetakoak, laguntza anbulatorioko zentroetakoak eta aldi baterako egonaldietarakoak.

e) Desgaitasun fisikoa, adimenaren desgaitasuna eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentroetako tarifak proposatu eta eguneratzea.

f) Desgaitasun fisikoa, adimenaren desgaitasuna eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentro berekietan eta itunduetan dauden beharrak aztertu eta esku-hartze egokiak proposatzea.

g) Bere eskumeneko arloetan, koordinazio eta ebaluazio prozesuetan parte hartzea.

h) Bere eskumeneko arloetan, diziplinen eta erakundeen arteko lantalde teknikoetan parte hartzea.

i) Desgaitasun fisikoa, adimenaren desgaitasuna eta gaixotasun mentala duten pertsonen arloko itunei dagozkien txostenak eta agiri teknikoak prestatzea.

j) Desgaitasun fisikoa, adimenaren desgaitasuna eta gaixotasun mentala duten pertsonen arloko itunen exekuzioaren jarraipena eta kontrola egitea.

k) Irizpideak eta baremoak egokitzea, Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonei kasu egiteko Legea betetzen dela bermatzeko .

l) Beste edozein eginkizun, bere jarduketaren eremuan agintzen zaiona.

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950